

**11/2019 TXOSTENA, APIRILAREN 17KOA, KONTRATAZIO  
PUBLIKOAREN AHOLKU-BATZORDEARENA****GAIA: EUSKADIKO MUGIKORTASUN JASANGARRIARI BURUZKO  
LEGEAREN AURREPROIEKTUA****I.- AURREKARIAK.**

Autonomia Estatutuaren 10.32. artikuluan ezarritakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoari (aurrerantzean, EAE) eskumen eskusiboa esleitzen zaio honako gai hauetan: trenbideak; lehorreko, itsasoko, ibaietako eta kable bidezko garraioa; portuak; heliportuak eta aireportuak; eta Euskal Herriko Meteorologia Zerbitzua, betiere Konstituzioaren 149.1.20. artikuluan xedatutakoari kalterik eragin gabe. Garraio-gaietan, zama-kontrataguneak eta -terminalak. Halaber, aipatu Autonomia Estatutuaren 12.9. artikulua ezartzen du EAERI dagokiola Estatuko legeria exekutatzeari abiaburua eta helmuga Autonomia Erkidegoaren lurralde barruan dituen salgai- zein bidaiari-garraioaren antolamenduari dagokionez, nahiz eta Konstituzioaren 149. artikulua 1. apartatuko 21. zenbakiak aipatzen dituen Estatuaren titulartasuneko azpiegituretan zehar egin, eta Estatuak beretzat gorde dezakeen zuzeneko exekuzioari kalterik egin gabe.

Estatuko Administrazioak abuztuaren 25eko 2488/78 Errege Dekretuaren eta ekainaren 19ko 1446/81 Errege Dekretuaren bitartez eskuordetu zizkion EAERI lehorreko garraio-zerbitzuak.

Eskumen hori baliatuta, Mugikortasun Jasangarriari buruzko Lege Aurreproiektu bat egitearen egokitasuna aztertu du Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak.

Gauzak horrela, legeria izapidetzeari ekin zaio Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko Garraio Plangintzaren Zuzendaritzak hala proposatua. Lege-aurreproiektua zenbait txosten eta alegazioren xede izan da, eta aipatu saileko Zerbitzu Zuzendaritzak horien inguruko txosten-eskaera egin zion Batzorde honi.

Espedientea prozedurak elektronikoki izapidetzeko Tramitagune aplikazio informatikoaren bidez izapidetu da (erreferentzia: DNCG\_LEY\_3193/18\_03).



## **II. – ALDEZ AURREKO KONTSIDERAZIOAK.**

### **TXOSTENA EGITEKO ESKUMENA.**

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legeak 11. artikuluan xedatzen du nahitaezko txostenak eta kontsulta-organoen irizpenak izapide hori arautzen duten xedapenek ezarritako unean eta eran eskatuko direla.

Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak eskumena du aipatutako arauaren proiektuari buruzko txostena egiteko; izan ere, horrek eragina du kontratazio publikoan, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27. artikuluan a) letraren 1. zenbakian xedatutakoari jarraikiz:

«27. artikulua.– Aholkularitza-eginkizunak.

Aholkularitza-eginkizuna betetzean, hauek egitea dagokio Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari:

a) Honako hauei buruz nahitaez informatzea:

1.- Kontratazio publikoaren alorreko edo haren eremuan eragiten dutenei buruzko xedapen orokorren proiektuak edo aurreproiektuak, Gobernu Kontseiluak edo hango sailburuek onartu beharrekoak».

Xedapen-proiektua denez eta ez denez horren xedea sektore publikoko erakundeak sortzea edota Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Instituzionaleko erakundeen egitura organiko eta funtzionalak arautzea, 116/2016 Dekretuaren 30. artikuluekin bat, txostena onartzeko eskumena Aholku Batzordearen Osoko Bilkurari dagokio.

## **III. – EDUKIA.**

Legearen bidez, pertsonen eta salgaien garraiorako printzipioak eta helburuak ezarri nahi dira, gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-ikuspegietan oinarrituta mugikortasun jasangarriaren garapen integrala lortzeko.

Era berean, Euskadin mugikortasun jasangarria lortzeko beharrezkoak diren tresnak eta prozedurak antolatzen ditu, mugikortasunarekin lotutako gaitetan eskumenak dituzten administrazioekin koordinatuta. Horretarako, jarduera



ekonomikoa antolatu eta planifikatuko da, baita lurraldea ere, gizarte-kohesioa eta prestakuntza- eta ekonomia-jardueretara irispidea izateko pertsonen aukeraberdintasuna bultzatuko dira, eta ingurumenarekin bateragarriak diren bizi-ohitura eta jarrerak sustatuko dira.

Kable bidezko garraioari dagokionez, lege honen bidez arautuko dira pertsonak kable bidez garraiatzeko diren instalazioen proiektuak, eraikuntza, martxan jartzea eta ustiapena, ibilbide osoa Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean dutenean.

Honako zati hauek ditu legeak:

- Azalpen-zatia.
- Xedapen-zatia, bost kapitulutuan antolatutako hogeitun artikulurekin.
- Xedapen gehigarri bat.
- Hiru xedapen iragankor.
- Bi azken xedapen.

Laburki, honako hau da legea osatzen duten kapituluaren edukia:

- I. Xedapen orokorrak.
- II. Mugikortasun jasagarria sustatzea.
- III. Planifikazio-tresnak eta kudeaketa-organoak.
- IV. Mugikortasuna kudeatzeko tresnak.
- V. Kable bidezko garraioa.

#### **IV.- ARRAZOI JURIDIKOAK.**

Kontratazio publikoaren arloko legearen gaineko arauak V. kapituluaren («*Kable bidezko garraioa*») 18. eta 19. artikuluetan daude jasota, baita Bigarren eta Hirugarren xedapen iragankorretan ere.

Legearen 18. artikulua araberan, «1. *Eusko Jaurlaritzari dagokio Legearen araudia garatzeko eskumena erabiltzea, baita kable bidezko garraioen plangintza orokorrerako eta garraioen koordinaziorako eskumena gauzatzea ere.*



*Eusko Jaurlaritza izango da honako hauekin lotutako zerbitzuak ezartzeko, kudeatzeko eta ikuskatzeko organo eskuduna:*

*a) Hiriarteko instalazioak.*

*b) 50.000 biztanle edo gutxiago dituzten udalerrietako hiri-instalazioak.*

*[...]*

*2.- 50.000 biztanle edo gehiagoko udalerrietan, udalek izango dute hiri-eremuko kable bidezko garraio-instalazioetako zerbitzuak ezartzeko, kudeatzeko, ikuskatzeko eta zehatzeko eskumena, baita gaikuntza tituluak ematekoa eta zerbitzu horietako tarifa-erregimena ezartzekoa ere, betiere arlo horretan aplikagarria den legeriak ezarritakoa betez. [...]».*

*Legearen 19. artikuluari jarraikiz, «1.- Zerbitzu publikoaren izaera duten kable bidezko garraio publikoko instalazioak ezartzeko egitasmoa herri-administrazio eskudunetatik edo gaitasun legal, fisiko edo juridiko nahikoa duen edozein pertsona fisiko edo juridikorengandik etor daiteke, sektore publikoko kontratazioari buruzko araudian ezarritako kasuetan. Edonola ere, instalazio horren titulartasunak publikoa izan behar du.*

*2.- Zerbitzu publikoko kable bidezko garraio-instalazioen eraikuntza eta/edo ustiapena zuzenean egin dezake administrazioak, baita zeharka ere, kasuan kasuko kontratua esleitu zaien pertsonen bitartez.*

*3.- Instalazioen ezarpenaren eta kudeaketaren eskumena duen administrazioak egin behar du zerbitzu publikoko kable bidezko garraio-instalazioen eraikuntzari eta ustiapenari lotutako kontratuen esleipena, sektore publikoko kontratazioaren arloko legerian ezarritako esleipen-prozedura eta -bideei jarraikiz.*

*4.- Zerbitzu publikoko kable bidezko garraio-instalazioak eraikitze eta/edo ustiatzeko kontratuak sektore publikoko kontratazioaren arloko legerian ezarritako edozein motatakoak izan daitezke. Gainera, legeri horren menpe egongo dira kontratuen baldintzei, indarraldiari, azkentzeari eta azkentzearen ondoreei dagozkien alderdi guztiak ere».*

Transkribatutako 18. artikulua horretan jasotako araubideak lotura du obren emakida-kontratuekin eta erregulatutako zerbitzuen emakida-kontratuekin. Hurrenez hurren, azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 14. artikuluan eta 247.etik 283.era arteko artikuluetan eta 15. artikuluan eta 284.etik 297.era artekoetan daude araututa. Lege horren bitartez egin zen, hain zuzen, 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa Espainiako ordenamendu juridikora. Aurrerantzean, SPKL deituko diogu. Emakida-kontratu



horiek kontratazio publikoaren arloko aurreko araudiko zerbitzu publikoen kudeaketa-kontratua ordeztzen dute; horregatik, egokiagoa dirudi espresuki aipatzea herri-administrazioek egin ditzaketan bi kontratu mota horiek. Horrez gain, egokia litzateke «esleipen-moduak» erreferentzia ezabatzea; izan ere, indarreko Sektore Publikoko Kontratuen Legeak esleipen-prozedurak bakarrik jasotzen ditu.

Legearen Bigarren xedapen iragankorarekin bat eginez, «50.000 biztanletik gorako udalek Eusko Jaurlaritzaren erakunde esleitzaille posizioa hartuko dute, lege honek Eusko Jaurlaritzari soilik esleitzen dizkion eskumenen kasuan salbu, baldin eta udalerrri horietan kokatuta badaude lege honetako 18. artikuluaaren administrazio-emakiden menpe dauden edo egon diren hiri-esparruko kable bidezko garraio-instalazioak.

*Emakida horiek indarrean egongo dira ezarritako iraupena bukatu arte, eta lege honetan ezarritako araubide juridikoaren menpean egongo dira».*

Legearen Hirugarren xedapen iragankorrari jarraikiz, «Eusko Jaurlaritzaren erakunde esleitzaille posizioa hartuko dute administrazio-emakiden menpe dauden edo egon diren hiri-esparruko zerbitzu publikoko igogailuak dituzten udalerrietako Udalek.

*Emakida horiek indarrean jarraituko dute, emakida-kontratuan ezarritako baldintzetan, eta administrazioaren kontratazioa arautzen duen araudiaren mende egongo dira, baita aplikagarria den ikuskaritza- eta zehapen-araubidearen mende ere [...]».*

Garraio Plangintzaren Zuzendaritzak egindako lege-aurreproiektuaren justifikazio-memoriari jarraikiz, Bigarren eta Hirugarren xedapen iragankorren eraginpeko instalazioetako batzuen emakidak indarrean daude, eta, ostera, beste batzuk, iraungita. Beraz, indarrean dauden emakiden kasuan, Administrazio kontratatzailearen posizio juridikoa eskualdatzeko orduan, aintzat hartu beharko da, hala badagokio, emakida formalizatu zuten agirietan ezarritakoa.

Edozein kasutan, hala indarreko nola iraungitako emakiden kasuetan, subrogazio-hitzarmenen izapideak azaroaren 6ko 2/2007 Dekretuaren bitartez onartutako Euskadiko Ondareari buruzko Legearen Testu Bateginean jasotako araudia bete behar duela kontsideratzen da.

## **V.- ONDORIOAK.**



Lege-aurreproiektuaren edukiak aintzat hartzen du sektore publikoko kontratazioaren legeria, arlo horri dagozkion analizatutako alderdiei dagokienez; izan ere, oro har, lege horren mende jartzearen formula erabiltzen du.

Horrenbestez, lerrootan adierazitako zehaztapenak eta oharrak aintzat hartzea espero duela, Euskadiko Mugikortasun Jasangarriari buruzko lege-aurreproiektuaren aldeko irizpena ematen du Batzordeak.